

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Agindua 139/2021 martxoaren 2koa. Onestea Arabako udaletan landa eremuetako merkataritza sustatzeko laguntzen 2021eko ekitaldiko deialdia

Merkataritzaren eginkizuna oso garrantzitsua da gure gizartean, eta gertuko hiri merkataritzak gure herri eta hiriak dinamizatzen ditu gizarte eta ekonomia bizitzaren bultzatzaile gisa.

Arabako Foru Aldundiak, gure lurraldeko merkataritzaren garapenari egiten dion ekarpenean, uste du elkarlanean jardun behar duela gure probintzian ari diren gainerako eragileekin eta erakundeekin. Ekimen honen bidez, herrietako merkataritza berpiztu nahi da Arabako eskualde bakoitzean, aberastasuna eta enplegua sortzeko eta herrialdeko bizilagunek izan ditzaketen oinarrizko merkataritza premiei erantzuteko neurri gisa.

Merkataritza garatzeko gako dira udalek merkataritza indarberritzeko egiten dituzten jardunak. Jardun horien barruan, merkataritza dinamizatzeak, sustatzeak eta pizteak ahalbidetzen dute hurbileko saltegiak sendotzea eta gure herri eta hirietako ingurua leheneratzea.

Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eginkizunetako bat da merkataritza sektorea bultzatu, sustatu eta garatzea, bai eta gure lurraldean lan egiten duten eragileekiko eta erakunde publiko zein pribatuekiko lankidetzaren sustatzea ere.

Premisa horiek oinarri hartuta, eta erakunde arteko lankidetzaren eta lurralde oreka garatzearen mesedetan, Arabako Foru Aldundiak aurreikusi du abian jartzea Arabako udaletan landa eremuetako merkataritza sustatzeko laguntzen 2021eko ekitaldiko deialdia.

Ekimen horrek xede dute merkataritza sustatzea Arabako eskualde guztietan, Arabako udalerrietan aberastasuna eta enplegua sortzeko neurritzat hartuta.

Arabako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, onarpena eman zien Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan emango diren dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorreari.

Oinarri horiek onartuz gero, eta ahalik eta zabalkunderik gehien ematearren eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, aginduzkoa da laguntzetarako deialdia ezartzea, merkataritza sustatzeko ekimenak berari egokitu beharko baitzaizkio.

Aginduzko txostenak aztertu dira,

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehena. Onartzea 2021ean Arabako udaletan landa eremuetako merkataritza sustatzeko laguntzetarako deialdi publikoa, gehienez ere 50.000 euroz hornitua. Deialdi hori honako foru agindu honen eranskin gisara doa.

Bigarrena. Deialdia arautzen dute Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren

dirulaguntzak lehiaketa arabidean emateko oinarri orokorrek (Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua, 2019ko azaroaren 27 asteazkeneko ALHAOn argitaratua, 137. zenbakian), eta foru agindu honen eranskinean xedatutakoek.

Hirugarrena. Foru Agindu honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021eko aurrekontuko 30.5.02.36.01.462.90.02 (xedapen erreferentzia: 105.415/000) gastu partidaren kontura ordainduko dira, zeina 50.000 euroz baitago hornitua.

Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko 100era arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

Laugarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka egin daiteke zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, egintza hau argitara ematen denetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Bosgarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021ko martxoaren 2a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA

2021EAN ARABAKO UDALETAN LANDA EREMUETAKO MERKATARITZA SUSTATZEKO LAGUNTZETARAKO DEIALDIA

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da Arabako udaletan landa eremuetako merkataritza sustatzeko jarduerak babestea, lehiaketa bidez dirulaguntzak emanez.

2. artikulua. Aurrekontu partida eta gehieneko zenbateko osoa

2.1. Foru Agindu honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021eko aurrekontuko 30.5.02.36.01.462.90.02 (xedapen erreferentzia: 105.415/000) gastu partidaren kontura ordainduko dira, zeina 50.000 euroz baitago hornitua.

2.2. Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko 100era arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Herrietako merkataritza sustatzearekin zerikusia duten ekintzak garatzeko interesa duten Arabako udalek eskuratu ahal izango dituzte laguntza lerro honetan jasoriko onurak.

3.2. Kide bihurtzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexu diskriminazioa eragiten duten entitateak ezingo dira izan dirulaguntza hauen onuradun, hala xedatzen baitu Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen 24.2 artikulua (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea).

Halaber, ezin izango dute deialdi honetan parte hartu sexu bereizkeriagatik zehapen administratiboa edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoek, harik eta zehapenean ezarritako epea amaitu arte, eta ezta ere Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Legea aplikatuz honelako deialdietan parte hartzeko debekua zehapen gisa ezarri zaienek, hala xedatzen baita 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.5 artikuluan (azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolaraueti buruzko Legearen testu bategina onartzen duena), Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenak emandako idazketaren arabera (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa).

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

4.1. Diruz lagundu ahalko dira proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak, hala nola:

a) Merkataritza dinamizatzeko jarduerak, hala nola:

- Kontsumitzaileak fidelizatzeko ekintzak.
- Animazio ekintzak, eta harreman publikoak publikoarentzat, oro har, merkataritza eremuak edo sektoreak sustatzeko.
- Merkataritza sustatzeko jardunaldiak egitea.
- Publizitatea, salmenten sustapena, merkataritza animazioa, erakusleihu apainketa...
- Bezeroak fidelizatzeko sistemak ezarri eta garatzea.
- Merkataritza guneak batera sustatzeko jarduerak.

b) Bestelako gastuak, adibidez:

- Merkataritza sustatzeko materialak diseinatzea, egitea, maketatzea, itzultzea, inprimatzea eta banatzea.
- Merkataritza sustatzeko programaren baten barruan egiten diren jardueren gaineko publizitate ekintzak, mailing-ak eta buletinak.
- Udalerrietan merkataritza jarduera sustatzeko jarduketekin eta premiekin zerikusia duten aholkularitza gastuak (merkataritzaren arloko jarduera berrien bideragarritasun azterlanak, ...)

4.2. Eskatzaile batek mota desberdinetako inbertsioak aurkezten baditu, eskaera bat aurkeztuko du inbertsio mota bakoitzeko.

4.3. Tributuak diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, baldin eta erakunde onuradunak ordaindu egiten baditu. BEZa eta gainerako zeharkako zergak ez dira inolaz ere diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko, berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoak direnean, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

4.4. Baimenduta dago diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzea, 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, 27. artikuluan xedatutako baldintzak betez).

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epea

Diruz lagundutako jarduerak 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko azaroaren 15era bitarteko aldian gauzatu beharko dira.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuari aplikatzekoa zaion dirulaguntza ehunekoa ehuneko 90 izango da.

6.2. Erakunde onuradun bakoitzeko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 15.000 euro izango da 8.000 biztanletik gorako udalerrietako udalentsat, eta 10.000 euro 8.000 biztanle edo gutxiagoko udalerrietako udalentsat.

6.3. Finkatzearen zenbateko gastua justifikatu behar den gutxienez diruz lagun daitezkekeen gastuetatik, adituko da diruz lagundu daitekeen oinarria honako eragiketa honen emaitza dela: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa zati aplikatzen den dirulaguntzaren ehunekoa.

6.4. Eskaerak dirulaguntza jaso ahal izan dezan, proposatutako dirulaguntzaren gutxieneko zenbateko hau ezartzen da, esleipena egiten den unerako: 500,00 euro.

7. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

7.1. Oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuak hamabigarren oinarrian ezartzen duena aplikatuko da. Gainera, jarduerak jaso ditzaketen gainerako laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira erabaki honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

7.2. Dirulaguntza eskaera aurkeztu eta gero beste laguntzaren bat lortzen bada, ahalik eta lasterren horren berri eman beharko zaio, idatziz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari, zeinak eskatutako laguntza murriztea edo ukatzea proposa dezakeen.

7.3. Dirulaguntza eskatzen duen erakundeak aurretik beste bat jaso edo eskatu baldin badu helburu bererako, hala adierazi beharko du eskaeran. Kasu horretan, dirulaguntza esleitzeko ebazpenak eragina izango badu, erakunde onuradunak uko egin beharko die aurretik esku-ratutako dirulaguntzei; halaber, jasotako funts publikoak itzuli beharko ditu, hala badagokio.

7.4. Laguntzen deialdi honek bete egingo ditu Europako Batzordearen unean uneko erregelamendu indardunetan ezarritako "minimis" arauak. Ondorio horietarako, Europako Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoak, 3.2 artikuluan adierazten du estatu kide batek enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen guztizko zenbatekoa ez dela izango 200.000 euro baino handiagoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan.

7.5. Dirulaguntza eta dagozkion berandutze interesak itzultzeko eskatu beharko da, baldin eta Arabako Foru Aldundiak jakiten badu erakunde onuradun batek beste dirulaguntza bat edo batzuk jaso dituela, emandakoarekin bateraezinak direnak, eta ez diela uko egin behar den bezala.

8. artikulua. Prozedura bideratzeko organo eskudunak

8.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

8.2. Balorazio Batzordea honela eratuta egongo da:

— Batzordeburua: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria edo berak eskuordetzen duen pertsona.

— Batzordekidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko burua edo berak eskuordetzen duen pertsona.

— Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

9. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

9.1. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da eta 2021eko apirilaren 15ean, 14:00etan bukatuko da.

9.2. Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen erregistro elektronikoa.

AFaren egoitza elektronikoa zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri elektronikoa baten edo BAKQ sistemaren bidez: <https://web.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez iza-pide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoa: <https://web.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>.

9.3. Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikoa zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta honako agiri hauek erantsi:

– Merkataritza suspertzeko jardueren deskribapen memoria eta jarduera horiek egiteko arrazoiak.

– Aurreikusitako gastuen aurrekontu xehatuta.

– Lana egingo duen enpresaren eskaintza edo faktura.

– Eskatutako 3 eskaintzak, aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresei 15.000,00 euroko edo gehiagoko zerbitzuak eskatu bazaizkie. Horrekin batera, hautatu den eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, zergatik aukeratu den azaltzen duen justifikazioa. Proiektua gauzaten hasitakoan, diruz lagundutako ekintzaren baten benetako gastuak 15.000 euroko muga gainditzen badu, nahiz eta gastua onartu zenean zenbatekoa txikiagoa izan, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira.

9.4. Erakunde eskatzaileak baliozkotasuna emango die Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzako laguntza eskabide eredian identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei.

10. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta baloratzeko irizpideak

10.1. Aurkeztutako jarduera mota bakoitza bereiz baloratuko da artikulua honetan zehazten diren irizpideak oinarri.

a) Toki erakunde eskatzaileko biztanle kopurua. (gehienez 30 puntu).

BIZTANKE KOPURUA	PUNTUAK
8.000 baino gutxiago	30 puntu
8.001tik 100.000ra biztanle bitartean	20 puntu
100.000 biztanle baino gehiago	10 puntu

b) Aurkeztutako memoriaren definizio eta kalitate maila. (gehienez 30 puntu).

DEFINIZIO ETA KALITATE MAILA	PUNTUAK
Zehaztasun eta definizio maila handiko memoriak	21 eta 30 puntu bitartean
Zehaztasun eta definizio maila erdiko memoriak	11 eta 20 puntu bitartean.
Zehaztasun eta definizio maila txikiko memoriak	0 eta 10 puntu bitartean

c) Merkataritza dentsitatea. Txikizkako establezimenduen kopurua 1.000 biztanleko 2019an (gehienez 20 puntu).

MERKATARITZA DENSITATEA	PUNTUAK
10 txikizkako establezimendu edo gehiago 1.000 biztanleko	20 puntu
5 txikizkako establezimendutik gora eta 10 baino gutxiago 1.000 biztanleko	15 puntu
5 txikizkako establezimendu edo gutxiago 1.000 biztanleko	10 puntu

d) Dirulaguntzara aurkeztutako jardun mota (gehienez 20 puntu).

INBERTSIO MOTA	PUNTUAK
Merkataritza dinamizatzeko jarduerak 4.1 a)	20 puntu
Bestelako gastuak 4.1 b)	10 puntu

10.2. Dirulaguntza emango zaien erakundeak zehaztu eta haien arteko azken hautaketa egiteko, eta bakoitzari emango zaion dirulaguntza zenbatekoa izango den zehazteko, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren 6. artikuluan zehaztutakoari jarraituko zaio.

10.3. Baldin eta eskaeran sartutako ekintzak, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailaren ustez, ez badira behar bezain lagungarriak dirulaguntzaren xedea betetzeko, partida horiek kanpoan utzi ahal izango dira esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko orduan. Era berean, erakunde onuradunak 6.1 idatz zatian ezartzen den diruz laguntzeko moduko gehienezko aurrekontua agortzen badu, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren ahala izango da diruz lagunduko diren gastu kontzeptuak zehaztea.

11. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea

11.1. Organo eskudunak, Balorazio Batzordearen proposamenez, dagozkion ebazpenak emango ditu. Ebazteko epea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da. Ebazpen horiek, ahal dela, baliabide elektronikoen bitartez jakinaraziko dira, eta ezinezkoa bada, gutun ziurtatuaren bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuz.

11.2. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka egin daiteke zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, egintza hau argitara ematen denetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

12. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

12.1. Laguntza lerro honen kontura finantzatzen diren jardueretan, Arabako Foru Aldundiaren babesa agerrarazi beharko da leku nabarmenean.

12.2. Dirulaguntzaren xedearekin zerikusia duten komunikazio, publizitate eta zabalkunde ekintza guztiak, ekitaldi publiko nahiz pribatuak, aurkezpen, amaiera ekitaldi eta antzekoak aldeztu aurretik Arabako Foru Aldundiarekin adostu beharko dira, bere irudi korporatiboaren inguruan berak ezartzen dituen jarraibideei jarraituko zaie, eta bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira, herri-tarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea modu eraginkorrean bermatuz.

13 artikulua. Dirulaguntza justifikatu eta ordaintzea

13.1. Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

13.2. Dirulaguntzak bide elektronikotik justifikatuko dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoan.

Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute jatorrizkorekin, zeina interesdunaren esku egongo baita, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren eskura egon beharko dute hala eskatzen zaionean.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, erakunde onuraduna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen erantzule.

13.3. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordaintzeko, erakunde onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du 2021eko azaroaren 15eko 14:00ak baino lehen:

- Egindako jardunen memoria.
- Justifikazio fakturen zerrenda; honako hauek adierazi behar dira: hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data, egoki bada.
- Justifikazio fakturak.
- Aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren ziurtagiriak (kontabilitateko P agiriak edo banku transferentziak edo laburpenak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin).
- Hauei buruzko informazioa jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena:
 - a. Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta aurkeztutako kopia jatorrizko dokumentuekin bat datozela.

b. Dirulaguntza honetaz gain, hemen diruz lagundutako kontzeptuetarako beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuk lortu diren. Baiezkoa bada, diru sarrera horien justifikazioa aurkeztuko da.

Ez dira dirulaguntza ordaintzeko aurkeztutako justifikazio fakturatzat hartuko eskabideari erantsi zaizkionak. Kasu horretan, onuradunak berriro aurkeztu beharko ditu faktura horiek, aurrez zehaztutako gainerako dokumentazioarekin batera.

Faktura elektronikoki aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren araberakoa izan beharko da haien formatua. Elektronikoki izenpetutako beste zernahi agiri aurkeztu behar izanez gero, onartu egingo dira konfiantzazko zerbitzu elektronikoki kualifikatuen eskaintzaileen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak <http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>.

Kontratu txiki gisa ezarritako zenbatekoak (40.000,00 euro obretan edo 15.000,00 euro gainerako kontratuetan) baino gehiago edo haien besteko gasturik izanez gero, hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, hautaketa horren justifikazioarekin batera, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira, eta justifikazio txostena ere bai, hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, non eta ez den aurkeztu eskaera egiterakoan, gerora gastu erreala kontratu txiki gisa ezarritakoaren beste edo hori baino gehiago izanik.

Nolanahi ere, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak aukera izango du beste dokumentu batzuk ere eskatzeko, egoki baderitzo memorian aipatzen dena egiaztatzeko.

13.4. Baldin onuradunak fakturaren baten ordainketa justifikatzeko badu, dirulaguntza ordaindu ahal izango da, justifikatu beharreko aurrerakin moduan. Hala egiten denean, eskatzaileak emateke dituen egiaztagiria 2022ko apirilaren 6a baino lehen aurkeztu beharko ditu.

13.5. Baldin eta 6 atalean ezarritako dirulaguntza mugaren bat aplikatu bada, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak txostena egin ondoren, diruz lagundu daitezkeen gastuen murrizketak onartu ahal izango dira, esleitutako dirulaguntzak aldatu gabe. Horretarako, dirulaguntzaren xedea bete behar da eta murrizketa horiek justifikatu behar diren eta diruz lagundu daitezkeen gastuen gutxieneko zenbatekoa bete behar dute. Honela aterako da gutxieneko hori: emandako dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehunekoa.

13.6. Ez da onartuko dirutan ordaintzea eragiketaren zenbatekoa, baldin eta 2021eko ekitaldirako indarreko araudian finkatzen den zenbatekoa bada edo handiagoa edo haren kontrabaliaoa atzerriko monetan.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

13.7. Baldintza horiek bete ezean, ordaindutako dirulaguntza itzultzeko erreklamazioa egingo da.

14. artikulua. Interpretazioa eta garapena

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru ebazpen hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro onar dezan.

15. artikulua. Eskaerak egokitzea

Jarduera jakin batzuetarako dirulaguntza eskatzen bada eta jarduera horiei ezin bazaie eman erabaki honetan arautzen diren dirulaguntzak, erabaki honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutelako, diruz lagundu nahi den kontzeptuak diruz lagundu ezin direlako edo, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz proiektu horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak aurrean kudeatutako beste laguntza lerro batzuei hobeto egokitzen zaizkielako, eta laguntza horiek esleitu ahal bazaizkie, aukeran izango da ofizios dagokien laguntza lerrora aldatzea.

16. artikulua. Emandako laguntza onartzea

Laguntza ematearen jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean erakunde onuradunak hari berriaz uko egiten ez badio emateko ebazpenean ezarritako baldintzetan onartu dela ulertuko da.

17. artikulua. Araubide juridikoa

Erabaki honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri arautzaile orokorretan ezarritakoaren mendean dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentziena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, araudia onartzen duena, baita dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak ere.